

Gaur santu berrien ereduak behar ditugu

Zizur Nagusiko parrokiak san
Josemariari beirate bat eskaini
dio

2004 Abu 26

Jose Luis Morrás jauna, Sesmatarra
eta Zizur Nagusiko (Nafarroa) san
Ander Apostolua elizaren erretorea,
beti prest dago edozein deialdiari
arretaz erantzuteko. Bulegoan ez
nagoenean, poltsikoan daramat
bulegoa, dio erretore jaunak gure

lehendabiziko kontaktuan telefono mugikorrez erantzun zigunean.

Elizan betidanik bageneuzkan hiru irudi: san Isidrorena nekazal herria delako gurea, san Frantzisko Xabierrena Nafarroan gaudelako, eta denon patroia den san Joserena. 2000.urtean beste bi beirate gehitu behar genituenean Jose Luis Jaunak gaur eguneko santuei sagaratzea erabaki zuen eliztarrentzako oraingo adibideak izan zitezkeenak: santa Vicenta Maria eta san Josemariari garai hartan oraindik dohatsua zelarik.

San Josemariaren beiratea Antonio Blancoren lana da, Iruñeko Katedraleko Martinena talleraren zaharberritzailea. Eredua san Josemariaren estanparen argazkia izan zen, irudia ezaguna baita, eta errez igartzen du parrokiatik sarri ibiltzen den jende askok.

Beiratearen hondoan san
Josemariaren libururik
ezagunenaren testuak irakur
daitezke, Bidea liburukoak, hain
zuzen ere.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/gaur-santu-berrien-
ereduak-behar-ditugu/](https://opusdei.org/eu-es/article/gaur-santu-berrien-ereduak-behar-ditugu/) (2026 Mar 10)